

Laudion, 2024ko irailaren 16an

## **San Roke egoitza zaharraren eraberritzea ekipamendu publiko bihurtzeko atzeratu egin da**

- *Proiektuaren kostuaren eguneraketak ia milioi bat eurotan handitu du Udalak egin beharreko inbertsioa; dagoeneko martxan dauden gainerako proiektuen bideragarritasuna baldintzatuz*
- *Udalak 2026ko martxoaren 31rako proiektua amaituta egotera behartzen zuen dirulaguntza itzuli du*

Laudioko egoitza zaharraren birgaitze integrala atzeratu egin da, kultura- edo komunitate-arloko ekipamendu publiko bihurtzeko, behar besteko finantzaketa izan arte. Proiektuak 1.134.088,79 euroko dirulaguntza zuen Next Generation funtsetatik; baina egin beharreko inbertsio osoa laguntza-eskaeran aurreikusitako diru kopurua, 2.571.250 euro, 3.495.181 eurora igaro da arkitektura-estudioak proiektua Europako laguntzetan ezarritako baldintzetara egokitu ahal izateko.

Udalak egin beharreko inbertsioa ia milioi bat euro handitu denez (2.361.093 euro, hasierako 1.437.162aren aldean), udal-teknikarien zalantza sortu du inbertsioaren bideragarritasunean; arriskuan jar ditzakeelako gaur egun herrian egiten ari diren gainerako inbertsioen garapena. Gainera, obraren kostuaren birkalkuluak ez du instalazio berria funtzionamenduan jartzeko egin beharreko inbertsioa

aurreikusten. Ondorioz, Gobernu Taldeak ospitale/egoitza zaharraren errehabilitazioa atzeratzea erabaki du, proiektua gauzatzeko behar besteko finantziak bermatu arte. Hori dela eta, jasotako dirulaguntza itzuli du.

Ainize Gataska Laudioko alkateak adierazi duenez, *"ez diogu uko egingo errealitate bihurtzea nahi dugun proiektu bati. Baina honek planteatzen dituen zailtasunak ikusita, dagoeneko martxan dauden proiektuen bideragarritasuna bermatzea erabaki dugu"*. Era berean, gaineratu duenez, *"lehenengo egoitzaren birgaitze integralari ekingo diogu berriro, bideragarria denean. Horretarako, erakundeekin harremanetan jarraituko dugu, beharrezko finantzaketa lortzeko"*.

### **Birgaitze integraleko proiektua**

Zehazki, kultura- edo komunitate-erabilera berri batera egokitzeko proiektua da hau, eta horretarako eraikinaren irisgarritasuna, bizigarritasuna, ingurumen-erosotasuna eta moldakortasuna hobetu behar dira, energia-eraginkortasunaz eta jasangarritasunaz gain, beti ere haren arkitektura errespetatuz. Lan horiek egiteko, Udalak 1.134.088,79 euroko Europako laguntza jaso zuen, Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agenda Ministerioaren ebazpen bat oinarri hartuta, berreskuratze-, eraldatze- eta erresilientzia-planari buruz, PIREPen (toki-erakundearen eraikin publikoen birgaitzea bultzatzeko programa) barruan. Laguntza ez galtzeko beharrezkoa zen proiektua eguneratzea, Europako eskakizunak betetzeko, eta, aldi berean, 2016ko martxoaren 31 baino lehen lanak amaitzea ere.

2017an idatzitako hasierako proiektuak 2.237.105 euroko inbertsioa aurreikusten zuen, eta 2022an egindako dirulaguntzaren eskaeran 2.571.250 eurora eguneratu zen. Baina proiektuaren azken zenbatekoa, deialdiaren eskakizunetara eguneratu

ondoren, 3.495.151 eurora igo zen. Horrela, 1.134.088,79 euroko dirulaguntza obraren ia %50 izatetik lanen kostuaren %32a izatera igaro da.

Nahiz eta urtarrilean Udalak kontratazio-espeditatea hasi zuen Next Generation funtsek eraginkortasun energetikoaren eta irisgarritasunaren arloan eskatzen zituzten baldintzak betetzeko eta eraikina erabilera kultural edo komunitarioko zentro bat bezala egokitzeko; azkenean, bideragarritasuna aztertu ondoren eta udaleko teknikarien aholkularitza adituaren aurrean, Gobernu Taldeak proiektuaren gauzatzea atzeratzea erabaki du plana gauzatzeko asmo argia izan arren.